

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Mertxe Pagoaga Etxaburu

*Lekeitio,
Bizkaia
(1929-2021)*

Aurkibidea



Biografia



1929an jaio zen Atea portalean. Aita lekeitiarra zuen eta ama Ondarroan jaioa, baina Lekeition hazitakoa. Bost neba-arrebatatik laugarrena izan zen. 18 hilabete zituela ama hil zitzaion eta senitarteko batzuekin hazi zen Goiko Kaleko baserri-etxe batean, Lekeitioko kaleetan zegoen baserri bakarrean. Umetan karitateko mojetan ikasi zuen. 16 urtegaz ogi-banatzaile lanetan hasi zen "Viuda de Telleria"renean, eta bi urtez jardun zuen bertan. Gerra denboran, Amorotoko Abiataga baserrian egon ziren, eta Lekeitiotik Kalbarioko kobazuloetara joaten ziren ezkutatzeraz. Aita arotza zuen, eta herrian bi arotz baino ez zeudenez, bere aita egiten zituen hil-kutxak Atea portalean zuen tailerrean. Bere amamak txerri-gobernuan egiten zuen lan: txerriak hil ostean txerriak prestatzen. Frantziako kostan "Valle de Mena" baporean hildako 17 gizonetatik bat bere neba izan zen. Beste neba eta arreba bat Argentinara joan ziren eta bertan egon ziren urte luzez. 29 urtez kabanen aritu izan da beharrean Lekeition eta Aulestin, urte gehienak arduradun legez. Jose Abaskal marinel lekeitiarrarekin ezkondu eta alaba bat izan zuten.

Zintak

LEK-012

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 65 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiola, Nerea
- **Transkribatzailea(k):** Gorostidi Vázquez, Jone - Goiria Mendiola, Nerea

LEK-013

- **Proiektua:** Lekeitioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Ajuriagerra, Iker - Goiria Mendiola, Nerea
- **Data:** 2010-06-08
- **Iraupena:** 29 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Amaren denda

- **Erref:** LEK-012/002
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:01:55. **Bukatu:** 00:03:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Sastreak, jostunak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Bere aita arotza zen eta ama jostuna. Denda txiki bat zuen Dendari kalean eta han egiten zituen jostun-lanak. Sasoi hartan herritar guztiek ezagutzen zuten elkar, denek zekiten denen berri.</p>

Transkripzioa

- Ta zer mariñerue edo aitta?
 - Arotza, arotza.
 - Ta amak edo biharrik edo eitten eban-edo kanpoan?
 - Eukan denporan jostuna, jostuna. Jostun zelan ixaten da, umik euki arren ba josten eban, jostun politta, zelan esaten da? jostuna
 -Ta zer ibiltzen zan etxerik etxe eta holan?
 -Ez, ez, ez. Dendatxu bat eukan. Ezebeza orduko dendak e ez diraz oraingo modukuak, hiru lau gauzaaz ta hantxen eitten eban josten. Bai, "Calle Tendería".
 -Ta klientela fijo bat euki eban?
 -Bai bai, Lekitxon ontxe da por ejemplo ezagututen ez garinak, baiña orduan? Batak azukria, bestiak olidxua, bestiak kafia, zelan da? Alkar ordaindu esaten da? Holan da ezta?. Euskera ez dakitx ez euskera ez erdera, baiña bueno aittuten nazue. Erdaldunari be haixe esaten dotsate: "Le doy cada patrada al letronario" esaten dotsate.

2. Panpinen orde z harriak

- **Erref:** LEK-012/003
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 00:03:02. **Bukatu:** 00:04:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umetan ez zuten ezta panpini ere. Panpinen ordeaz harriak erabiltzen zituzten, haiei jartzen zizkieten arropak; gero eta harri handiagoa hobe. Lekeitiotik Kurtzia partean ibiltzen ziren.

3. Lehengo Lekeitio

- **Erref:** LEK-012/004
- **Iraupena:** 0:01:56. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:06:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Herria asko aldatu dela dio, orain "Madril txikito" dela. Portuan motor txiki eta itsasontzi asko zeuden, gaur egun, osteratzen, ez. Bere senarra ere itsasoan ibilitakoa zen. Lekeitio bitan banatzen zen: portu aldekoa eta Atea portaletik aurrerakoa. Berbetan ere aldea zegoen, bere ustez portu aldekoak motelagoak ziren; gaztelaraz ere ez zuten ondo egiten.

Transkripzioa

- Eta gero bestela Lekitto asko kanbidxe da edo...?
- Buf! Lekitto? ba zer esango dutsut neuk? Madrid Txikito on, ta lehen ein kontu Oleta zala, esakera baten. Beti izan da Lekitto ba herri politte izan da, beren portu politte, hogeta lau enbarkaziñoi edo hogeta sei edo zemat euki ebazan? ta oin bi daoiz, ta gero motor txikiñak, neure gizona be zan itsasokua, mariñela, sotapatroi ibiltzen zan, baiña motor txikiña be baeukan, edo tximiñotan-ta eitteko hori. Ba haidxe zan gure bizimodua ba itsasotik izaten zan, baiña neu hango partekua nintzan, orduan ganera esaten ebenaz gu baiña ariñagokuak, zelan da? eukitten ebela, aparteko hori, gure partia ta Arranegi partia ein kontuz erdittik bi endda egoten giñela, nik neuk ez dot ezautu, baiña halan esaten eben.
- Entzunde dekogu be bai, ezta? tonuen be bai, berbetan be, diferentzidxe dauela.
- Bai! Ez noia ezer esaten, baiña gure aldin motelak zirin mariñelak. "Ladero", "Crasto", esto... egon pixkat, "Saander" ta dana zan holakoxe berbetia, nire gizona lelengo dala e! Ta gero ya ein zirian por ejenplo izenak gizonazkunak be, nik dakit, on etxat akordaten, baiña neure gizonari bere lagun bateri nik ez dakitz zelan deittuten eutsan erderazko izena, zelan zan? Bueno, oin etxat etorriko gero etorriko dxadaz danak, baiña on etxat etorriko. Dana zan nahiku txarto eitten eben berba, ta erdera "no te digo nada", erdera ui!

4. Erdararik ez; eskola gutxi

- **Erref:** LEK-012/006
- **Iraupena:** 0:03:41. **Hasi:** 00:07:27. **Bukatu:** 00:11:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

<p>Lehen gazteleraz txarto egiten zuten. Etxean ere ez zuten inoiz barbarik entzuten. Eskolan ikasi zuten zerbait. Mojetan ikasi zuen, konpainiako mojetan. Edozer egiten zuen eskolara ez joatearren.</p>

Transkripzioa

- Lekitxon erdera askorik orduan ez zan entzuten, lehen zuen gazte denporan.

- Ez, ez, ezta! Benetan e, badiñotsut. “Gixonak-eta nun sartu diraz?” ta igual, “Bai! Santanderren sartu ei diraz denpora zantarras, Laredon ez dait zenbat /eztaizemat/ antxoa erun daben”. Osake dana zan, txarto eitten zan berba, on onguak? Sasiletrauak diraz ongo mariñeruak. “Sabén mucho”, bai bai.

-Ta zure ama ta aitzak erderia Bai?

-Nik zer esango dotsut aittena ta amena, hamazortzi hillebete neukan, baiña ordun erderarik ez genun eitten, gauzia dan modura. Ni neu etxian, hamen be gurin erderarik pentsa bez ganera, osake dana euskera, eztakiu zelan eskribiduten dan “huevos o con “h””ta ipiñi beste zozer ta listo zaoz. Asiske...

-Ta eskolan ikasiko zenun ba?

-Ba eskolan neuk esango dotsut. Ixan naz dibujuan, “número uno” ta negoziðuk eitten eskolan. Denderi neukan laguna ta enkomelauk eitten ebazan ranbla. Ta nik eitten nebazan labañiaz tajadak tajadak eta “marili marili” juten nintzan saltzen txori txiki bateaz. Pentsa zelako eskolak! Lotsabagia. Ta gero ba hareaz eitten genduzan haridxak erosi punto kruzerakuak eta bueno. Gero ba, ta gero badiñotsut gero emoten gaitxuzen lelengo katona zan, katona: a, e, i, o, u, kartilli lelengo ta gero katonera pixkatxu bat loditxuao zan liburua ta gu pozarren liburu lodidxa daukula ta, baiña berari beiratu ta zer? Justo-justo esaten gaitxuzenak bidxar hauxen e preguntia eingo dou ta, justo-justo bera ikasi. Gero hasten zanian atze partetik ta zuri ez jatzunin tokaten ha preuntia ez nun jakitten. “Cateo. ¡A estudiar!”. Monjetan ibil nintzan, hamen zelan da berau? karidadeko zeintzuk zirin eurak? konpañiko monjakin ibili nintzan ni. Ta bueno gero ba, osterabe ez genun ikasten, baiña osterabe etorten zan beste liburu loditxuo, enziklopedidxa pasa, ta estudixa barik bestia. “La cosa es” erabili beñikpein liburua badaukazula-ta. Ba handik osterabe, ba handik denporatxura, hareri badiñotsut preuntak ikasi lantzín kateo bat hartun da “ a barrer [...]” horixe noznahi. Ta konejuntzako bedarreran beti prestaaten nintzan ez eotiarren eskolan. Entzuten dabenian gure umiak esango dabe: “Amuma politxa euki genduan guk!”. Ta gero ba, juten giñin zerraiñetan be neu lehenengo, bedarreran be neu lehenengo kuestiñoi da eskolatik eskapatia. Tonta-tontia ez nitzan ixan, baiña ez neukan eskolarako amorru handirik. Ta gero ba entziklopedi handidxa. Ta atara ein bihar zan dirua ia han euazan monjak, harek enkargata dozela ta, haren dirua nun atarako, baiña bueno halan edo holan erosi neban neure entziklopedixa handidxa. Zemat hoja estudixako neutsazan nik hareri, baiña erabili eitten neban, erabili bueno! Harro gañera. Ta halantxerik zan gure eskolako kontua.

5. Mojak: debaldekoa edo ordaintzekoa

- **Erref:** LEK-012/007
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:11:08. **Bukatu:** 00:14:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Mojen eskolan ordaintzen zutenak zein debaldekoak egoten ziren, bera debaldekoan egon zen. Kategoria ezberdintasunak egoten ziren ikasleen artean. Behin moja bati amonari ostutako xaboi bat oparitu zionekoa kontatzen du.

6. Mojetan, txiza aldean

- **Erref:** LEK-012/008
- **Iraupena:** 0:02:48. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:17:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

Moja askoren izenak gogoratzen ditu: Sor Nila, Sor Teofila, Sor Josefina, Sor María... Eskolako lagun bati gertatu zitzaion anekdota kontatzen du: komunerako baimena eskatzen zutenean, askotan ez ziren komunera joaten, eta komunerako baimena hirugarrenez eskatu zuenean, benetako larriarekin, ez zioten utzi eta aldean egin zuen txiza.

7. Baltsean neskek erabakitzen zuten

- **Erref:** LEK-012/009
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:17:04. **Bukatu:** 00:20:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Baltsean neskek erabakitzen zuten norekin egin dantzari: gustuko mutilari baietz esan eta gustukoa ez zenari kalabazak. Gramola egoten zen plazan; hura amaitzerakoan, bandakoek pare bat pieza jotzen zituzten; eta, gero, parkera joaten ziren Tomasarengana.</p>

Transkripzioa

- Ta gaztetan baltsiun genbiltzazanin be geuk nahi gendunakin eitten gendun baltsiuan, ordun neskak urteten gendun ta hori, ta ni beti izan naz neure lagunak baiño altatxuo ta klaro eruteko ba altiak, ta ba ni neu beti

erutekua izaten nintzan eta klaro ikusten nebanin mutille pareji datorrena ta neure gustukue zana, eitten neban buelta emon ta bestiari enplia ta nik neu neure gustokuaz baltsiuan. Ta halakoren baten esan nabon: "entzun eizu Mertxe, beti toketan jat neuri feuenagaz baltsiun eittia", ta: "bai? ez naz ni kargutu, e hurrungun ondo beittuko dot ia nor datorren, ta gustokue ez badan ez dogu eingo". Ta halantxerik zan erutia. Ta ni handidxa nintzalez ba neuk nahi nebanagaz eitten neban ta nahi ez dabena bestiari enpliaten neutsen. Ordun korruan egoten giñian, eta etorten bazirin: "eingo dogu?" izaten zan preguntia, "eingo dogu?" ia zer ein bihar zan / bizan/, "eingo dogu?" ta "ez". Ta lagun bat neukan ta bizirik dao ontxen be, ba urteten gendun ta lekittar bi etorri dxakuzen, baiña gauza feorik ezin neike esan, ezta? ez noie esaten. Ez baia esan biher dotena, bai ignorantzidxan esan niku zan, gauzi dan modura, ze ez bazan izan ingnorantzidxan ez eban kontestako ha berbia. Etor zirin mutil bi ta, gu baiño zahartxuo, guk ordun hamasei bat urte-edo gehidxorik ez, ta: "eingo dogu?", ta nire launak esan eutsan, saladi zan e, neu baiño hondiño saladio zan, ta "tenia casa salida número uno", ta esan eutsan ze, "eingo dogu?" ta: "zoieze zuok amagana umiok, mokuk kentzen" berak, ta baltisun segidu ta halakoren baten batek dinotse: "nunguak? goikuak ala behekuak?", "nahi bozun goikuak eta nahi bozu behekuak, eta zuk nahi dozun tokikuak, baiña guri itzi bakian" hala ta hor. Gero, gero zirin kontuak: "Fulana, akordaten zara?", "egon zeiz isilik!". Karo, ordun nok nok, ze sentidutan esan eban? ez dozu, aittu dozu, ezta?, ze sentidutan ta harek oso-oso-osorik esan eutsan: "nahi bozu goikuak, nahi bozu behekuak, guri etxaku ardurarik nunguk kentzen dozuzen-ta", ta segi geuk baltsean. Horretxek diraz lehengo kontuak, on ez dao.

- Ta baltsioan zer, plazan?

- Plazan bai.

- Eta ze egoten zan ba? bandie edo...

- Osake egoten zan gramolia honenbesten denporan gramolia, baiña danak zirin: "Franzisko alegre ole, Franzisko alegre ola!", holakotxiak. Ta gero amaittuten zanian izaten zan piezatxu bi bandan, bandakuk eitten genduzanian, dxuten giñian parkera, parkin egoten zan Tomasa, Tomasa parkekua, han e hori euan, zelan da? kopak, refreskuk-eta hartzeko, taberna modura mostrador bateaz, ta harxe dxuten giñien ta hantxe eitten gendun nahi beste baltsiu, ta oster a be plazara bandara. Ta halantxerik pasaten zan gure denpori, ta zinerako nonor ahal bagendun manga Eskolapin haratz eta hontz ibili, nahi dan beste pausu emon, etorten zirin bien, ta ez bazirin tanbien, han ibiltten giñien lantzin bat mangaten genduan, baia laurentzako bakarrik, beste bidxak han geldituten zirian, ta halantxik.

8. Beti diru barik

- **Erref:** LEK-012/010
- **Iraupena:** 0:02:03. **Hasi:** 00:20:56. **Bukatu:** 00:22:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Ez zuten dirurik izaten lagunekin irteten zirenean. Lantzean behin osaba ez zenari "tio" deituta lortzen zuten diru apur bat. Zinemarako sarrera mutilek ordaintzen zieten.</p>

Transkripzioa

- Ez gendun eukitten, abellanetarako be ez gendun eukitten ta abellanak lau-edo txori txiki baten ta txori handidax sei-edo ta eurak ezin janda, peniaz amaittuteko harek abellanak, bai. Ta eskaparati, pasetelen eskaparati moko beteten genduan: "ha neuria, hori neuria..." ta danak zirin geuriak. "Ez, ha neuk esan dot neuria dana". Bestik: "Ez, hori neuk zuk baiño ariño esan dot neuria dana", halantxik pasaten gendun guk arratsaldia.
- Eta pagarik-edo eukitten zenduen?
- Pagia? lantzin tio ez danari "tio" deittu, tio ez danari "tio" deittu. Nundik norako tio, aitten ezaunen bat-edo "vete a saber", ta: "tio". Igarten eben kontixu diruagaittik zana eta txori txikiña edo txori handidaxa, haidxe poza, harexeaz txori, baiña tio ez zanari e, asike... tiuak makinista nebazan eta kanpotik zirian ta tio ez zanari: "tio", lantzien bat, geuk fundaten genduzan tiuak be, halantxerik zan.
- Bestela zer, ziñera-eta mutillen konture edo?
- Mutillen kontura! nun geunkagun ba zinerako dirua ba? hola! gallineruan ganera, gallinerun ez gendun nahi izaten hara gora ion, ze pasun beti egoten zan. Ia nahiz ta [...] bakizu ba, pasun itzi ein bihar zan /bizan/ ta. Ahal dala lelengoko filatxun jesarri juten giñianian zinera, ahal gendunian.
- Nun?
- Goraburun. Ordun Goraburun, ontxen batzokidax daon tokidxan Goraburu zan, ta egoten zirin aurrin horrek butakak ta atzin gallinerua gora artian, asike eske, hauri.
- Eta jantzan eitteko eta ordainddu ein bihar izaten /bizeten/ zan edo ez?
- Jantza soltia? holan eitten eben, egoten zan, baiña no.

9. Ogi-banatzaile

- **Erref:** LEK-012/011
- **Iraupena:** 0:03:49. **Hasi:** 00:22:59. **Bukatu:** 00:26:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

16 bat urterekin hasi zen ogi-banatzaile etxerik etxe Atea portaleko "Viuda de Telleria"n. Hasieran, buruko otzaran eramaten zituen ogiak; gerora, eskuko gurdia izan zuen. Ogiak pisu zehatz bat izan behar izaten zuen, bestela isuna egoten zen.

10. Dendak; arropa gutxi

- **Erref:** LEK-012/012
- **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:26:48. **Bukatu:** 00:28:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Lekeition denda asko zeuden, lehen ez ziren kanpora joaten erosketak egitera: Mendexaneku, Isidraneku, Enterradoreneku... Arropa gutxi izaten zuten, eta muda onenak medikuarenera joaten zirenerako gordetzen zuten, badaezpada ere. Beraiek gaur egungo umeak baino bihurriagoak zirela dio.

11. Dzanga portura

- **Erref:** LEK-012/013
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:28:50. **Bukatu:** 00:30:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

San Pedro egun batean, mutil batek uretara bultzatu zuenekoak kontatzen du.

12. Nobio kontuak

- **Erref:** LEK-012/015
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:30:34. **Bukatu:** 00:32:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra

Laburpena:

Etxera laguntzen zioten mutil asko izan zituen, eta bere senarra izango zenari egiten zion kasu gutxien. Nobioarekin egindakoak konfesatu egin behar izaten ziren; hala ere, hurrengotan berdina egiten zuten.

Transkripzioa

- Zortzi milla nobidxo, beti nobidxua baiña beti launa. Lekittarrak asko euki nebazan etxera lagunduten eustenak, baiña neuk hartun dot, hartun neban gizona hamalau urterako neure atzetik ibilli zana eta berari eitten neutsan kasurik gitxien, Jose Zumal, Jose Abaskal Zumal, ta gero ba beragaz ezkondu nintzan, baiña lelengo lelengo lelengo harek nik zortzi milla nobidxo, baiña berak nobidxa bat bakarrik, neu.
- Horretan be okerra.
- Bai okerra izan naiz, bai. Nire alabia barriz ez, nire alabia bat hartun eta beragaz geldittu zan.
- Eta nobidxotan eta zer? ezetakorik ez zenduen eitten, edo eitten zenduezan zuen kontuek, mosutxuek eta zirritxuek-eta?
- Bueno, lelengotan ez pentsa erreza izaten zanik e! ze konfesa ein bihar izaten /bidxaten/ zan-ta. Gero ba holan tokadatxuak " un poquito a la ligera" eta bai, beti egoten izan da zeozer, ezetz esaten dabenak be zeozer beti izan da. On, ongo moduko libertaderik ba ez zan egon, ordun be pasaten zirin gauzak pasaten genduzan modura, baiña "no, era diferente" diferentia izeten zan.
- Baiña holan etxerako bidien-eta sekule be ez ezebez ez zan, bueno zozertxu bai.
- [...] bizi zirin bizi giñian-ta, bai atetan mosutxuek emon, ze eingo zenduan

ba? karo ba!

- Ta gero konfesetan?

- Konfesa? bai. Ta "hurrengun ez ein e!" esaten eben eta hurrengun bi gehidxo, hurrengun hiru gehidxao eta dxo aurrera, bai.

- Orduen ez ziñen hori, beste batzuk ez dotsien izten nobidxoari ezta ikuturik be ez eitten.

- Nik ezetz esaten da, baiña nik baietz pentsaten dot "poco más o menos" antziñakuak "al lado del culo lo tenemos", baietz, baiña "habra de todo", osake egongo zan danetarikuak, bai.

13. Neba "Valle de Mena" baporean hilda

- **Erref:** LEK-012/017
- **Iraupena:** 0:02:37. **Hasi:** 00:33:28. **Bukatu:** 00:36:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Frantziako kostan Bilboko "Valle de Mena" baporean hildako 17 gizonetatik bat bere neba izan zen, burdinazko bobinak zeramatzaten eta kargak buelta eman zien. Sekula ez zuten gorpua aurkitu.

14. Gerratik babesteko moduak

- **Erref:** LEK-012/020
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:41:37. **Bukatu:** 00:43:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerran 7 urte zituen. Amоротoko Abitaga baserrian igaro zuen gerra sasoia, handik ikusi zuten Gernikako bonbardaketa. Lekeition Kalbarioko kobazulora joaten ziren. Babeslekuak zakuekin egiten ziren. Bere edadeko ume bat hil zutela gogoratzen du.

15. Goserik ez

- **Erref:** LEK-012/022
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:43:57. **Bukatu:** 00:47:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Gerran ez zuen goserik pasa, ez zitzaien ezer falta izan, baserrian bizi baitziren. Bere amama txerri-gobernuan ibiltzen zen, eta handik ere lortzen zuten janaria. Baserri hori kalean zegoen baserri bakarra zen. Sekula ez zen baserriko lanetan aritu.

16. Telazko panpinak, marroka, astorik mandoka...

- **Erref:** LEK-012/023
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:47:51. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Telazko panpinak izaten zituzten umetan, jostunek ematen zizkieten telak. Mutilekin marroka eta astorik mandoka ibiltzen ziren. Txikotarekin ere jolasten ziren.

17. "Trabola, trabola" kanta laburra

- **Erref:** LEK-012/025
- **Iraupena:** 0:00:34. **Hasi:** 00:51:47. **Bukatu:** 00:52:21
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Bestelako kantak

Laburpena:

[illegible]

Transkripzioa

Trabola, trabola, trabola,
jujia,
itsasorako treetzaria.

Bagoiaz danok estrepezuan,
bakoitza bere tostara,
tostara!
Andra ederrak ohian itxitta
txaputxeruen kontura.

18. Abarketak

- **Erref:** LEK-012/027
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:53:03. **Bukatu:** 00:55:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » lantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Herriko jaiak oso alaiak ziren. Ogi-banatzaille zebilela abarketak erdi apurtuta zituela gomutatzen du, gizon batek abarketa berriak erosi zizkion Eulogioren dendan. Gizon hori oso eskuzabala zela. Dantzan aldean zituzten oinetakoekin egiten zuten.

19. Homosexualitatea

- **Erref:** LEK-012/029
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:55:46. **Bukatu:** 00:57:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

Laburpena:

Homosexualitateari buruz. Baten bati "marikita" esan arren, ez zuten homosexualizat hartzen, ezta pentsatu ere, itxuragatik baino. Egongo egongo zirela dio, baina jakin barik.

Transkripzioa

- Ez gendun notaten maritxu bazan bez ta Juanita bazan bez. Orduan, danak zirin gutzako prakak eukazenak danak mutillak. Egidxa da, nik neuk beñipein e! oin ez dakitz bestiek ze pentsaten eben e!
- Ez, baia, apur bet mutille izen arren, baia diñot esaten zenduela ba igual ez zala urreratzen neskañe edo...
- Hareri pailazotxua, osake marikittatxua "en el sentido de" hori marikittatasun hori ez e! sino ke "beittu berari, darabiltzezan plantak", osake, bai osake, baiña diferenti danik ez. On ensegidako igarten da diferentiari, baiña orduan ordun ez eutsagun igarten.
- Baia egon egongo zan ba.
- Armaridxun asko, bai. On armaridxuk giltz barik dao ta on, on on noiznahi urteten dabe, baiña lehen? lehen kontixu ondo zarratute euazan ta ez zebe ez zebe urteten.
- Txarto ikusitte be bai, ezta?
- Badiñotsut, nik ezin neike esan txarto ikusinikorik iñor egon zanik gure denporan, ez gendun, neuke ez neban notaten beñipein, ta geutara be hori holan ez gendun eitten berba. Marikittia por ejemplo, ba pailazua edo marikitia "beittu berari", edo harrua -edo, osake ha beste gauzia pentsa bez. Ta zer zanik puta ta horrek ta ezta... "no existian".

20. Paparroia, hondartza

- **Erref:** LEK-012/032
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 00:59:14. **Bukatu:** 01:01:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Mendia eta hondartza » Hondartza
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

Kretonazkoa izan zen izan zuen lehenengo paparroia (bainujantzia). Bere izekok egin zion. Askotan lantegitik irteterakoan hondartzara joaten ziren atun usaina kentzera. Paparroia ez zuena azpiko gonarekin sartzen zen uretara.

21. Karabineroak eta Guardia Zibilak

- **Erref:** LEK-012/033
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:01:08. **Bukatu:** 01:02:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Polizia

Laburpena:

Karabineroak kanpotarrak ziren, baina etxeko egin ziren. Guardia Zibilen kuartela non zegoen azaltzen du: Ondarroarako bidean eskumatara, kobazuloaren ondoko etxeetan. Karabineroak eta Guardia Zibilak bat egin zuten. Karabineroak portuko etxola batean egoten ziren.

22. Errazionamendua; "tipo único" tela

- **Erref:** LEK-012/034
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 01:02:48. **Bukatu:** 01:04:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerraostea eta Francoren diktadura » Ekonomia gerraostean
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Gerraostean jende asko ibili zen estraperloan. Errazionamendura txarteltxoarekin joaten ziren, eta hura bukatu ostean, berriaren bila joan behar izaten zen udaletxera. Tela hartzeko ere ilara egin behar izaten zen. Tela "tipo único" zen, zeru kolorekoa, Hijas de María kongregazioren kolorekoa.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com